


...eta kitto!

691 zkia. 2009-IX-25

ASTEKARIA



MULTIZINEA bertatik bertara



Clínica Oftalmológica

RECALDE

Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2.
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

J. Etxeberria, 13

R.P.S. 5508

Tel. 943 700 230



*Astelena frontoian
izango
gaituzu
irailaren
29, 30
eta urriaren
1ean*

ERAKUSKETA

*Zatoz gu
ezagutzera!*



**EXPO
ADINTSU
2009**



Bai Euskarari Ziurtagiria
balioa etabemikuntza - valore innovación


1.600 entitate baino gehiago ziur daude



ZABORRA-OTZEA
AGURAIN



ERANDIO
ARLAN



GOROKA
HENDAIA



GASTEIZ
HENOAGOTIA



MEZATUP
DONOSTIA



ELKAR
IRUÑEA



IURBETA
IURBETARGENTZUA

ziurtagiaren
902 430026



baieuskarari.org



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

EUKIAREN JAIKIA EUKI.- Dirua izateak emoten duen harrokeria. Euren burua besteen gainetik ikusten duten aberastu berriengatik esaten da. "Ez gure gizonak asko ekialako, baiña eukiaren jaikia eban berakin". "Juan jakozen hari eukixaren jaikixak; gizajuak ez eukan zer ahora eruan, ezta hilda nun jausi be".

EURIRA EGON.- Euria egiteko itxura duenean. "Aspaldi honetan eurira dago".

ESKUTITZAK

EIBARKO TALLARRA GAZTETXIA BOTA NAHI DABE

Zazpi urte eta piku pasau dira Eibarko Tallarra gaztetxia egun eder batian okupatu zanetik. Urte guzti hauetan bertan ikasitako, ikusitako eta bizitako momentuak paregabe izan dira danontzat. Bertan, gaur egungo gizartiak bultzatzen gaituen indibidualismotik, kapitalismo basatititik, matxismotik, sumisiñotik, miseriatik... etara nahi izan dogu modu asanblearixuan, gure gabezi eta akatsekin. Gure bidia: **Autogestiñua!!!** Beti siñistu izan dogu gure kabuz funtzionatzeko gai garela; zazpi urtionek eta gero, argixago gerau jaku ez dogula ez udalaren ez

iñongo instituziñoren biharrik. Hónek diru gosez jarraitzen dabe; hórron adibidia da Eibar zertan bihurtzen diharduan, Merkatal Gune Irekixa, Arrateballen suntsitzia, Corte Inglesa...

Oin Tallarra gaztetxia botatzia nahi dabe, trenbidiaren zabaltzia aitzakitatz hartuta, iñongo informaziñorik emon barik. Gaztetxiak martxan jarraituko dau desalojo mehatxuaren gaiñetik, pasifioz betetako bide honetatik, aurrera..., okupaziñua eta autogestiñua zabaltzen. Beraz, adi egon eta **Tallarratik** pasa!

EIBARKO TALLARRA GAZTETXIA

ZATOZ SAGARDO EGUNAZ GOZATZERAI

Sagardo dastatzaile gisa edo sagardo banatzaile gisa. Zuk nahi duzun moduan, baina ez egin kalerik urriaren 3an ...eta kitto!-k antolatuko duen Sagardo Egunari! lazko etenaldiaren ondoren indarberrituta dator aurtengo Sagardo Eguna. Euskal Herri osoko eta Galizia, Asturias eta Kantabriako 20 sagardotegi izango ditugu Untzagan, txorizo, gazta eta bakailao-

ortila pintxoekin batera, goizez zein arratsalde. Sagardoa dastatzera ez eze sagardoa banatzen lagundu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan (943200918), eta guztiok elkarrekin eskaini diezaiogun herriari egun biribila. Bihotzez eskertuko dugu zuen guztion laguntasuna.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Aditza da gure bereizgarri eta miraririk handiena, baina baita gure arazorik handiena ere. Gure aditzetatik %75 alferrik dauzkagu, norbaiti kalte egiten. Gainera, gehienak periferastikoak dira eta batzuk bi-koitzak, horrek dakarren lastrearekin. Deterioroak edo degenerazioak ekarri du lastre hori, aditx trinkoak galduz baitoaz. Hizkuntza potenteek laburtu egin behar dute eta guk ere hori behar dugu, hizkuntza bakarra eta nazionalaren bidean"


(Xabier Amuriza, idazlea)

"Ikusita lanik gabe egon eta langabezia kobratzen ez dutenek hileru 890 eta 1.230 euro artean kobratu dezaketela, ez gabilta parasitoak sortzen? Mileurista sozial havek bestelako mileuristena baino egoera hobea dute, edozer prestatzeko egun osoa libre izateaz gain. Bide batez, lantxo batzuk egiten badituzte eta bikote ez formalarekin (hau laguntza jasotzen edo lanean) danon aurretik pasiatzen badu, zertarako aldatuko du bere egoera?"

(Pello Salaburu, hizkuntzalaria)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

HAMAİKABAT-EN ERANTZUNA


Juan Luis Cristóbal Eibarko EAko presidentea aurreko astean esandakoen harira, Hamaikabat-ek honakoa adierazi du: *“Orain egun batzuk Cristóbalek udal gobernuko hirigintza-politika kritikatu eta alkatearen zein orain dela gutxira arte EA-ko kide izandako Mertxe Garate Hamaikabat-eko zinegotziaren dimisioa eskatzen entzun dugu. Kritikak egokiak diren ala ez albo batera lagata, Cristóbalen koherenziari begiratu gero, nahikoa da Udaleko akte begiratzea orain kritikatu dituen guztiak bere alderdia den EAk eta, beraz, Cristóbalek berak babestu dituztela ikusteko”*. Hori ikusita, EAko presidenteari *“inkoherentzia ariketa ia perfektua”* leporatu dio Hamaikabatek

ETXEBIZITZAK %26 MERKEAGO

Espainiako Etxebizitza Ministerioaren datuen arabera, azken urtean etxebizitza berrien prezioan izandako jaitsierari begira ipiniz gero, EAeko hirien zerrendan Eibarren izan da jaitsierarik nabarmenena, %26koa hain zuzen ere.

FIBROMIALGIA ELKARTEA

Defibel fibromialgiak eragindakoen elkarteak Eibarko Emakumeen Mahaiarekin bat egin du. Berdintasunerako zerbitzuak oso garrantzitsutzat jo du elkartearen erabakia eta etorkizunean herriko beste elkarte batzuk mahaira erakartzeko ahalegina egingo du.



Eva Juezek Aitor Alberdiren lekukoa hartuko du; eurekin, Carlos González alderdikidea. / EKHI BELAR

Eva Juez izango da aurrerantzean EAJ-ren bozeramaile

MARTITZENEAN EAJ ALDERDIKO ORDEZKARIEK UDALETXEAN EGINDAKO AGERRALDIAN, Eva Juez aurkeztu zuten bozeramaile berri gisa. Juezek orain arte Aitor Alberdik bete duen kargua beteko duela aurreratu zuen eta, horrez gain, Berdintasun saileko buru izaten jarraituko du. Alberdik, berriz, hilabete pare batean zabalatzeko moduan izango den Batzoki berriaren

proiektuan dihardu beharrean. Bozeramaile berriak orain arteko ildoari jarraituko diola argitu zuen eta, horrekin batera, *“Eibarre-rako zein eskualderako estrategikoak diren proiektuei babesa ematen jarraitzeko”* asmoa adierazi zuen. Horien artean Errebal, Txonta, zezen-plaza berria, Erisonoko teknologia-parkea eta memoria historikoa berreskuratzeko gunea aipatu zituen.

Ezker abertzalea Errebalen inguruan

EIBARKO EZKER ABERTZALEAK, AZKEN EGUNOTAN ARALAR, EZKER BATUA ETA EUSKO ALKARTASUNA ALDERDIEK EGINDAKOAREN HARIRA, Errebalen gertatutakoaren



inguruko *“ardura politikoak”* eta Miguel de los Toyos alkatearen *“dimisioa”* eskatu zituen eguaztenean, Alberto Garro, Iñaki Amuategi eta Emilio Aiastuik emandako prentsaurrekoan. Errebalen izandako *“irregulartasunak”* salatzeaz gain, Txonta eta Erisonorako proiektuetan gertatutakoak ere gogor salatu zituzten, horietan eman diren *“birkalifikazio ilegalak eta hondamendi ekologikoak”* azpimarratuz. Horrekin batera, Eibarren gertatutakoa beste herrialde batean *“dimisiorako arrazoia ez ezik, kartzelarako arrazoi”* izango litzatekeela adierazi zuten. *“Horrenbeste lan eta diru kostatu den Plan Nagusiak”* orain ezertarako balio ez duela onar dezatela gaineratu zuten.



Eguaztenean emandako prentsaurrekoak Errebalen bertan eman zuten.. / EKHI BELAR

Munduko artisautza eta gastronomia

UNTZAGA PLAZA MUNDUKO ARTISAUTZA ETA GASTRONOMIAREN TOPAGUNE IZANGO DA DOMEKARA ARTE, bertan martxan dagoen azokari esker. JC2000 enpresak Udalaren laguntzarekin martxan ipinitako azokan 21 stand daude eta bertan denetarik eskaintzen dute: eskuz egindako munduko libururik txikiak, pitxiak, Indiako jantziak, zurlanak, Kataluniako hestebeteak, Nafarroako kontserbak... tartean Aitor López eibartarrak lekale eskaintza zabala dauka. Azoka 11.00etatik 15.00etara eta 18.00etatik 20.00etara egongo da zabalik.



Ipinitako azokan 21 stand daude eta, hainbat gauzen artean, munduko liburu txikiak ere izango dira ikusgai.

Expoadintsu, martitzenetik aurrera Astelenan

MARTITZENEAN, IRAILAREN 29AN ABIATUKO DA LEHENENGOZ ANTOLATU DEN EXPOADINTSU AZOKA, ASTELENA FRONTOIAN.

Hiru egunetan (urriaren 1era arte) 50 urtetik gorako nagusientzat zein euren familiakoentzat produktu, zerbitzu edo baliabideren bat eskaintzen duten instituzioek, eskualdeko udalek, elkarteek eta enpresek hartuko dute parte.

Azokaren inaugurazioa martitzenean 12.00etan izango da eta egun horretan azoka 14.00ak arte eta 15.30etatik 19.30etara egongo da zabalik. Eguazten eta eguenean, berriz, 10.00etatik 14.00etara eta arratsaldeko 15.30etatik 19.30etara zabalduko dute. Sarrera doan da.

Ekimena gauzatu ahal izateko hainbat talderen elkarlana ezinbestekoa izan da: Eibarko Udala, Debegesa, Deparkel (Parkinson gaixotasuna dutenen Debarreneko Elkarte), Ikasten (Debarreneko Esperientzia Eskolako ikasle ohien elkarte) eta Biztu (erretirodunen elkarte) elkarrekin ibili dira dena prestatzen eta antolaketaren ardurak, berriz, Debegesak izan du.

Azoka martxan egongo den hiru egunetan Astelena frontoian orotariko eskaintza aurkituko dute nagusiek eta haien zaintzaile edo familiakoek: 13 enpresek, 10 erakundek eta 18 elkartek parte




Nagusiendako bereziki prestatutako azoka izango da Expoadintsu.

hartuko dute. Kutxa eta Euskotren dira babesleak. 100 metro karratuko azalera hainbat stand, ekintza, aurkezpen, tailer eta erakusketa garatuko dituzte.

Lan istripuaren inguruko salaketak

AURREKO ASTEKO EGUENEAN EL CORTE INGLÉS BERRIA ERAIKITZEKO LANETAN HILDAKO GAZTEAREN HERIOTZA SALATZEKO HAINBAT KONTZENTRAZIO egin dituzte sindikatuak. Barixakuan ELA sindikatuko ordezkariak Untzagan batu ziren "Lan istripu gehiagorik ez" zioen pankartaren atzean eta, horrez gain, lan horietan "segurtasunari dagokionez sekulako utzikeria" egin dela salatu dute. Iazko uztailean sindikatuak lan ikuskaritzan

horren inguruan egindako salaketak "eraginik ez duela izan" gehitu dute. CC.OO. sindikatuak ere bat egin du salaketarekin eta hainbat lagun ezbeharrak gertatutako tokian batu ziren barixakuan. LAB sindikatuak, berriz, astelehen eguerdian egin zuen kontzentrazioa eta UGT-k, berriz, istripua zergatik gertatu zen ikertzeko eskaera egin du. Eibarko Ezker Abertzaleak ere istripuaren inguruko ardurak eskatu ditu, "prekarietatea" salatzearekin batera.



Carmen Baroja

Zinea

Ez da erraza komunikabide ezberdinek bat egitea euren titularretan, baina azken egunetan "notizia" batek egunkariaren azalak batu egin ditu: Brad Pitten iritsiera Donostiara. Ez bakarrik argazkiari dagokionez; titularrak idazteko orduan ere ados jarri direla dirudi. Publikoa ere bat etorri da Tarantinoren pelikula ikusi nahian; horren frogak, sarrerak minutu gutxitan agortu zirela. Pantalla handiaren magiak bizirik dirau, edo horrela dirudi behintzat Donostiako zinemaldiak astindu dituen pasio eta garrasiak ikusita. Urtean behineko erritua izan daiteke, edo mitoen beharra... Kontua da Pittek ikututako bazterrak urte bihurtu direla egun batez.

Aldi berean, urrezko albistea topatu dut... eta kitton!: zinea edukiko dugula Eibarren. Unzagak uztailean itxi eta gero, nire burua zulo beltzean murgilduta zegoen: zer egin beharko ote genuen pelikula bat ikusteko, asteburuetan autoa hartu eta aukerako zentro komertzialerantz abiatu?

Nostalgiak harrapatuta egon naiz egunetan eta haurtzaroko domekak etorri zaizkit burura: bazkalostean Capitol edo Amaia edo Rialtora joaten ginenekoak -5 pelikula aukeran astero-. Egia da ohiturak aldatzen direla eta gaur egungo bizimoduak beste eskaintza batzuren bila bultzatzen gaituela. Baita azken urteetan zinera joaten direnen kopurua izugarri jaitsi dela ere eta horrek zine areto mordoak ixtea ekarri duela. Kultura arloa zulo sakonean sartua dago aspaldian eta inork ez du irtenbidea asmatzen. Egia da, baita ere, krisialdi ekonomikoa kulturaren etsai indartsua dela.

Egoera latz honetan argi izpiren bat aurkitzea zaila da, baina oraingo honetan pozteko albistea jaso dugu Eibarren. Donostian zinemaldiak bazterrak astindu dituen moduan, guk ez dugu galdu zineaz gozatzeko aukera. Ongi etorri.

asteko
%40
datua

jaitsi da eskopeta salmenta, 2008ko iraileko datuak eta aurtengoak alderatuz gero. Kartutxoan salmentak, berri, %55 egin du behera. Gure herrian oraindik ere pisu handia duen sektorearentzat ez dira berri onak, eta krisi ekonomikoari ez ezik, armak merkaturatzeko orduan indarrean dauden araudi zorrotzari leporatzen diote gainbehera.

Tasa eta zergak 'izoztea' erabaki du Gobernu Batzordeak

UDALEKO GOBERNU BATZORDEAK TASA ETA ZERGAK 'IZOZTEA', HAU DA, DAUDEN MODUAN LAGATZEA ERABAKI DU, aurreko barixakuan prentsaurrekoan azaldutakoari jarraituz. Horretarako hainbat arrazoi badituztela dio Miguel De los Toyos alkateak, *"baina horietatik garrantzitsuena hiritarrek in lanari ekitea da"*. Besteak beste, Orbeako kirolegeiaren sorrerarekin igo nahi zituzten zergak azkenean ez dituztela igoko argitu zuen alkateak. Bestalde, zabor-bilketaren ardura duen Mankomunitateari arlo horretako zergak ez igotzeko eskaera egingo zaiola azaldu zuen, *"baina hori ez dago gure esku"*.

De los Toyosek adierazitakoaren arabera, beste tasa berri bi onartuko dira osoko bilkuran, *"Coliseoan zinea emateari dago-kiona eta Kirol Patronatuak eskainiko dituen ikastaro berriei da-*



gozkienak". Bestalde, urte amaieran jasoko den diru kopuruan erabaki horrek eragin nabarmenik ez duela izango azaldu zuen, *"jasotzea aurreikusita zegoenaren antzerakoa jasoko da"*.

Jarrera ulertezina

Bestalde, bezperan Juan Luis Cristóbal Eibarko EAKo presidente berriak Udaleko Gobernu Batzarraren aurka egingo dako kritiken harira, esandakoa alderdi horretako *"barne-krisiaren ondorioa"* besterik ez di-

rela uste du De los Toyosek: *"Cristóbalek leihoak ireki eta aireztailua martxan jarri du euren arazo guztiak herri osora igorri"*. De los Toyosek ez du ulertzen, bestalde, ekainera arte Udalak hartutako erabakien alde egon izana eta, orain, EAtik hainbeste jende Alkarbide edo Hamaikabat-era joatean, denaren aurka agertzea. *"Erradikalismoaren bidea hartu dute eta ezker abertzalearen postura hartu dute herriko kontuetan"*, adierazi zuen De los Toyosek.

Oin dala hamar urte

1999-IX-24 / 286. ZKIA.



- Gipuzkuako herri arteko bertso txapelketan, G. Meabebasterretxeak, Javier Arrizabalagak eta Juan Mari Narbaizak hartu eban parte Debabarrenarekin eta Mariasun Oteizak gaijartzaille jardun eban.
- Trafiko Zuzendaritzak kalerautako dekretuak motozikleta guztiak matrikulatu biharra ekarri eban. Herrixan 200etik gora eguazten eta Udaletik kalerautako banduaren kopixia bialdu jakuen jabe guztieri.
- "La Santa" izenarekin ezagutzen zan kioskua kendu eban San Andres parrokiaren fatxadiakin bat ez etorrela-eta. Kioskoko lizentzia orduan amaitzen zan eta ez barrizia erabagi eban Udalian.
- Azitiango gasolinera aldameneko etxiak egitteko lehelengo pausuk emoten hasi ziran. 60 etxebizitza, behaldian Lidl supermerkau haundixa eta, honen azpiko lur zatixan, aparkalekuak egingo eban gero.

Oin dala 365 egun

2008-IX-26 / 649. ZKIA.


- Azken lau urtietan etorkiñen kopurua bikoiztu egin zan Eibarren eta 1.400etik gora eguazten oin dala urtebete. Populaziño osuaren %5a osatzen eban eta gehixenak Latinamerikatik etorritakuak.
- Barrenengan izandako luperixiak momentu hartan errepidetik zoiazten automobilletako bat "jan" egiñ eban. Denda barrixa jasotzeko biharra atzeratiaz gain, trafikuan aldaketak ekarriko eban.
- Txonta, Bolingua eta "El Casco"-n 1.400 etxebizitza eraikitzeo proiektua onartu zan Udalaren ezohiko billeran. Ezker Batua -Aralar koaliziñoko ziñegotzi bixak kenduta, beste danak alde egon ziran.
- Escuderia Eibarko ordezkariak lehelengo bidar hartu eban parte Rally-en mundialian, 1 Formularen atzetik autuaren munduan proba inportantienian. Agredak eta Artetek osatu eban bikotia.





Sagardo Eguna indartuta dator

URTEBETEKO ETENALDIA ETA GERO, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO SAGARDO EGUNA aurten inoiz baino indartsuago ailegatuko zaigu urriaren 3an, zapatuan. Beste herri batzuetako esperientziak zuzenean ezagutzen jardun dute Euskara Elkarteak ordezkariek eta, horri jarraituta, aurtengo Sagardo Eguna goizez (12.00etatik 13.30etara) eta arratsaldez (18.00etatik sagardo guztia amaitu arte) ospatuko da, Untzagan. Egun osoan musikarekin girotutako jaiak izango da.



Euskal Herriatik kanpoko sagardoa edateko aukera izango da urriaren 3an. / AMAIA JAI

Sagardoa dastatzeko aukera eskaintzeaz gain, beste hainbat berritasun izango ditu ekitaldiak: 12.00etan dolarea edo lagarra zabalduko da Untzagan bertan, sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ikusi ahal izateko eta bertan zapalduko diren 400 kilo sagarretatik irtengo den mustioa edan ahal izango du jendeak. Ekitaldiaren hasiera Eibarko talde batek zabalduko du zapatu eguerdian eta hortik aurrera nahi duen guztiak izango du sagardo mota ezberdinak probatzeko aukera. Goizekoa dastaketa txikia izango da eta arratsaldekoa, berriz, handia.

Hainbat herrialdeetako hogeitazaz sagardotegitatik ekarritako sagardoa edateko aukera izango da: Gipuzkoako sagardotegiak Arizia, Artola, Iruin-Astiazaran, Bereziartua, Gartziategi, Isastegi, Mina, Oialume Zar, Otsua-Enea, Txindurri Iturri, Rezola eta Zapiain dira; Bizkaiatik Axpek hartuko du parte; Arabatik Iturrieta; Nafarroatik Larraldea; Iparraldetik (Lapurditik) Txopinondo; Kantabrietatik El Muro eta El Ti Sidru; Asturiasetik Cortina eta Menéndez; eta Galiziatik Manzanova.

anzorik anzo



Astlehenean hasiko dira sanmiguelak Aginagak

San Miguel bezperan, hilaren 28an hasiko dira jaiak Aginaga auzoan, 18.00etan bertako ermitan egingo duten kanpai-iraulketarekin eta jaien hasiera iragartzeko botako duten txupinazorekin. Biharamonean, berriz, San Miguel egunean, 11.00etan meza nagusia ospatuko da, abesbatzak eta Usartza txistulari bandak lagunduta. Eguerdian, berriz, piskolabisa eskainiko zaie hara gerturatutako guztiei eta, ondoren, lagunarteko bazkaria egingo dute, Usartza txistulari bandakoekin batera. Dena dela, eta ohikoaenez, San Miguel eguna igaro eta hurrengo asteburuan jarraituko du jaiak, kasu honetan urriaren 3an eta 4an: zapatuan arratsaldean hasiko dira ekitaldiak, 17.00ak aldera (briska txapelketa, umeendako jolasak, lagunarteko afaria, suzko erroberak, erromeria Kupela taldearekin eta txokolate-jana gautxoriendako). Eta domekan, berriz, 11.00etako meza nagusiaren ondoren Zerutxu dantza taldearen emanaldia egongo da. Jarraian paella jana herrikoia egingo dute eta, jaiak agurtzeko, idi-probetarako tartea ere izango da.

eibar kaleka

Abontza bide

Legarre Gain kaleari jarraituta eta Arrajolara joaten dagoen kale horren izenari begiratu gero, 2004ko Eibarko toponimoen zerrendan bitxikeriarik aurki dezakegu. Izan ere, ikerketen arabera "Abontza" "Abauntzaga"-ren aldaera izango litzateke, "baina herri giroan hala esatea dotorekeria" izango litzateke eta hortik gehien hedatu den erabilera forma laburra izatea.

Pegora kopurua: 4. Erroldatutakoak: 22.



Zinea bueltatu da herrira berriz ere. Untzaga zinemaren desagerpenarekin ez zegoen zazpigarren arteaz gozatzeko Eibarko zinema aretorik, baina bihartik aurrera Coliseoak eskaintza zabala irekiko du: 3-4 filma astean. Amorebietako Areto SL enpresak izango du barixaku, zapatu, domeka eta astelehenetan zinea eskaintzeko ardura.

- Uztailean utzi zitzaion Untzagan zinea emateari eta hilabete biren ostean berriro ere dugu herrian zinez gozatzeko aukera. Zer da Coliseoan eskainiko dena?

Astero hiru edo lau filma eskainiko dira Coliseoko hiru aretotan, beste kultur eskaintzen arabera (antzerkia edo horrelako beste ekitaldirik balezago zinea ez litzateke egun horretan egongo areto horretan). Hiru areto horietan eskaintza ezberdina egongo da, zine independientea, komertziala eta umeei zuzendurikoa. Munduko zine onena emango da bertan, munduko azken estreinaldiak. Ez dira 'zaborrak' emango, horiek DVDetara doazelako zuzenean eta tira, formula honek funtziona dezake ala ez, baina hori da gure apustua, ahalik eta eskaintza onena ematea.

- Zein egun eta ordutegitan proiektatuko dira filmak?

Aipatu bezala, Coliseoan eskaintzen diren beste ekitaldiak hartu behar dira kontuan, baina printzipioz gure asmoa da barixakuetan, zapatuetan, domeketan eta astelehenetan proiektatzea filmak. Ordutegiei dagokienez ere Coliseoko beste eskaintzak hartu behar dira kontuan, baina aurreratu dezakegu zapatuetan saio bi es-



ALFONSO BENEGAS, Areto SL-ko gerentea:

“Munduko ZINE ONENA eskainiko da Coliseoan”

kaintzeko asmoa daukagula (19.30etan eta 22.30etan). Bestetik, barixakuetakoa 22.30etan izango litzateke, domeketakoa 19.30etan eta astelehenetakoa 20.30etan.

- Zein izango da prezioa?

5 eurokoa eta 4 eurokoa lkuslearen Egunean.

- Eibarren azken urteotan zinema bat izan dugu eta itxi egin behar izan zuten errentagarria ez zelako. Orain hiru aretoko beste zinema bat izango dugu, astean hiru edo lau filma eskainiko dituen. Zergatik uste duzue errentagarria izango dela?

Mundu honetan lanean ari naizen urte guztietan desageritzear zeuden zinematik hartu eta berriz altxatzeaz ohitu naiz. Durangon ere antzeko egoera bizi izan nuen. Desageritzear zegoen eta orain beste harmaila bat egin behar izan dute, VIP zona dago, 2D eta 3D proiektoreak dituzte. Egia da Eibarren egun batzuetan inor gutxi joango dela zinemara, baina badakigu honekin ez garela aberastuko, gure asmoa zerbitzu hau eskaintzea da eta horretan egingo dugu

lan ahal bezain beste. Guk uste dugu Eibar hiri bizia dela eta azken aldian ikusi denez, herrietako zinematik gora doaz jendeak ez duelako diru gehiegi xahutu nahi kanpora joanez. Horrela, inguruko herrietakoak hona etorriko direla ere pentsatzen dugu.

- Noiz arte geratzeko asmoa daukazue?

Printzipioz abendura arte geratzeko akordioa daukagu, baina alde bien aurretiko jarrera akordio hori denboran luzatzea da. Hiru hilabeteetan ezin da ezer altxatu, are gutxiago lurrean dagoen ezer. Gauzak ondo aztertu behar dira, ez dugulako dirua botako. Zinematik funtzionatzea, teknologia berrietan inbertsioa egitea... da gure asmoa. Udalak gure proiektuan interesa zeukan eta gustatu egin zaie, beraz, etorkizuneko akordioak lortzeko esku zabalik gaude alde biak printzipioz. Galdakaon, adibidez, horrela hasi ginen eta 16 urte daramatzaguz elkarrekin Udalak eta geuk.

- Denbora gehiagoan geratuz gero, zerbait aldatzeko asmoa daukazue?

Programazioaren sakontasuna aztertuko genuke, adibidez. Enpresa irekia gara eta herriko kolektiboekin (Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin, adibidez) edo zine-klubekin (gu ere hortik baikatoz) ulertzea nahi dugu.

- Teknologia berrietan inbertsioa egin nahi duzuela aipatu duzu. Zein berrikuntza ekartzeko asmoa daukazue?

Teknologia berrien kontzeptuan enpresa aitzindaria gara estatuan. Durangon ezarri genuen lehen pantaila proiektore digitala, adibidez. Guk uste dugu zinea aisirako zerbait dela, ikuskizun bat, eta hori eginen saiatzen gara. Bestetik, zinearekiko ilusioari eusteko beharrezkoa ikusten dugu teknologian inbertitzea. Digitaliziorako eta 3D-rako eboluzioa da etorkizuna, zeluloidea hilda dago. Hori da zinearen apostua, eta opera, musikalak eta kirol-emankizunak eskaini daitetzke sistema horren bitartez. Hala ere, 3D-a ez da dena, izan ere, 2D-ak eskaintzen duen kalitatea izugarria da. Soinu eta irudi garbitasuna sekulakoa da.


Azken aldixan irakasleri errespetua galdu jakuela asko nabarmendu da komunikabidietan jasotako barrixetan. Ikasliak lotsagabetu bajakue be, larrixagua izan leikiana da h6nen gurasuak be eskua altxatzen hasi dirala irakaslien kontra. Izan dira legia aldatzia eskatu dabenak be, irakaslien autoridadia babesteko ahalegiñian.

Irakasliaren autoridadia babestu biharra ikusten dozu?



JOKIN EGIA
37 urte
proiektugillia

Adibidez, bestian esan zesten Markiñako nere irakasle ohi bati bere ikasle batek kokotetik hartu eta ixa muturra apurtu zetsala. Lehengo sasoiekin konparauta. aldaketia egon dala begittantzen jata , eta gaztiek errespetua galdu detse irakasle eta halakueri.




OSCAR TREBIÑO
42 urte
ostalarixa

Ez dot uste irakasliak babestu bihar diranik. Begittantzen jata gauzak oin lehen moduan daguzela, eta batzutan gertatzen dirala kasu txarrak eta beste batzutan ez. Umiak etxian ikasitakua egitten dabe eskolan, holan, gurasuen arduria da umiak ondo hezitzia.


ASUN FERNÁNDEZ
44 urte
kamareria

Lehen ezbarदिña zan. Ointxe irakasleri errespetua galdu jake eta errua umiena bada be, gurasuak erru haundixa dake. Irakasliarekin gatazka bat daganian gurasuak beti umien alde badagoz, umiak errespetua galduko detse irakasleri. Bueno, batzuk gurasueri be galdu detse errespetua.



TERESA AGIRREAZALDEGI
48 urte
irakaslia

Neri begittantzen jata irakaskuntza osuan daguala lana egitteko eta horren barruan subjektu dnak sartzten gara: irakasliak, ikasliak, gurasuak... Hezkuntzia dannon arduria da, ez bakarrik irakaslina. Holan, famelixen aldetik be irakasliak babestu biharra daguala begittantzen jata.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

Eguazten arratsaldian Klub Deportibuan egiñ eben ikasturte honetarako Berbetan programaren presentaziñua. Aurkezpenian programako protagonista nagusixak diran euskaldun barri zein zaharretako batzuk egon ziran, ekimenaren antolatzaillia dan ...eta kitto! Euskara Elkartearen, laguntzailliak diran Udal Euskaltegiko eta AEK Euskaltegiko eta babeslia dan Udaleko ordezkariarekin batera. Bertara ailegau eta programaren izenari ohore eginda, holan topau genduazen danak: Berbetan.

Honezkeroko taldietako batzuk euren kontura hasituta badagoz be, eguazteneko ekitaldixak emon zetsan hasiera ofiziala ikasturte barrixari. Euskaldun barrixerri euskeria praktikatzeko aukeria emoteko helburuari jarraituta jaixo zan Berbetan programia, beste herri batzuetan mintzapraktikarako zabalduetako bi diak izandako arrakasta eta emaitza onekin animauta. ...eta kitto! Euskara Elkartear zeñ Eibarko euskaltegi bixak, Udal Euskaltegiak eta AEK-k, horrelako programa baten premiñia azapimarratu dabe behiñ eta barriz: "Euskeraz ikasten diharduan jendiari, euskaltegixan emoten dittuen orduetatik kan-

pora be, euskeria erabiltzeko eta praktikatzeko aukeria eskindu nahi detsagu, klasian ikasitakotik pauso bat aurrera juan eta kalian, erregular, euskeraz jardutera animatzeko".

Oso talde dinamikuak

Helburu horri jarraituta, euskaldun barri eta zaharrekin taldiak osatziari ekin zetsen eta, oin momentuan, bost talde dagoz martxan: euretako baxotxian euskaldun zahar pare bat eta lauzpabost euskaldun barri alkartu ohi dira. Normalian tabernaren batian geratu ohi dira, astian behiñ, pare bat ordu euskeraz berba egitten emoteko. Programako arduradunak azaldu deskuenez, "taldietako batzuk urtiak daroiate martxan, hasieratik eta atzetik etorri diran lagunetako batzuk talde hórretan integratzen juan dira. Aittatzekua da taldietan herrialde ezberdiñetako lagunak hartzen dabela parte. Gaiñera, badagoz oso talde dinamikuak eta, tabernan egotiaz gain, antzerkura juateko edo pasiatzera urtetzeko be geratzen diranak.



Berbetan jarduteko ordua ailegau da

DEISY RODRIGUEZ, euskaldun barrixa

- Euskaldun barrixa ez eze, Uruguaiakua izanda, zelan ailegau zara Berbetan-era?

Uruguain euskaldun jatorrixa dakan jende mordua bizi da, nik neuk bigarren abizena euskalduna dakat eta uste dot uruguaiarren %10k abizen euskaldunen bat dakela. Edozelan be, nere etxian euskerarik ez jakinda be, neri hizkuntzak asko gustatzen jataz eta hango euskal etxera juaten hasi nintzan, euskeria ikastera. Senarraren famelixia Nafarroakua da eta bera be nerekin hasi zan ikasten.

- Eta zelakua izan zan Uruguaitik Eibarrera etortzeko kontua?

Badira sei urte hona etorri nintzala. Hasieran urte birako beka batekin ikastera etorri nintzan eta, horretarako asmorik euki barik be, hamen bizitzera geratu nintzan.

- Han ikasitakuarekin, behintzat, "rodajia" egin da ekarri zenduan...

Ba segiduan ikusi neban han ikasitakua oso gitxi zala eta euskaltegixan urtebebe emon neban, oso pozik, baiña biharrian hastian klasiak laga bihar izan nittuan eta, ikasitakua ez galtzeko, Berbetan-en izena emotia erabagi neban. Harrezkeroko urte t'ardi pasauko zan.

- Eta zer moduzko esperientzia dihardu izaten?

Oso gustora nago. Gure taldian euskaldun zahar bi eta sei euskaldun barri gagoz. Euskaldun zaharrene-



"Ikasitakua ez galtzeko asmuarekin emon neban izena"

tako bat Kontxa Laspiur da eta oso irakasle ona da, berak asko daki eta asko laguntzen desku, oso esplikaziño onak emoten deskuz eta etxerako lanak eta dana preparatzen deskuz.

- Berba egitteko erreztasun haundixagua dakazu oiñ?

Eibarren mordua egitten da gaztelera, baiña nik ahal doten gauzetan euskeraz jarduten dot: merkatu plazako basarritarreri gauzak eskatzeko, biharreko gauza batzuetan... ez dot egun osuan euskeria erabiltzen, baiña ahal doten neurrian euskeraz egitten ahal egitzen naiz.

MIREN ANZOLA, euskaldun zaharra

- Zelan animau ziñan Berbetan programarekin bat egittera?


Iaz, ...eta kitto! rebistan irakorritta izan neban horren barri eta sosiguz sosiguz nere burua animatzen hasi nintzan. Etxian asper-tuta egoten nintzan eta, euskaldun zaharren premi-ña eguala ikusitta, animau egin nintzan eta aldizkari-xan eguan orrixa bete, bu-zoira bota eta deittu egin zesten.

- Eta zer moduz jua jazu?

Zoratzen nago, oso-oso pozik! Geure taldian euskaldun zahar bi gagoz lauzpa-bot euskaldun barriekin eta astero pare bat ordu emoten dittugu alkarrekin. Tabernan zeozer hartzeko geratzen gara eta hortxe jarduten dogu, berba eta berba, denporia konturau barik juaten jaku, erraz egongo giñake ordu gehixago be.

- Zeuen artian ezagutzen jua arte gatxagua izango zan berbetan hastia, ezta?

Hasieran piskat gehixago kostatzen jakun, baiña segiduan hartu genduan mar-txia eta euskaldun barrixak, eurak kontrakua pentsatzen badabe be, denpora honetan asko mejourau da-



“Orduak konturau barik juaten jakuz berbetan”

be eta errezagot egitten dabe berba. Eta geuk be, zeozer txarto esan ezkerot, konfidantza osuakin esaten detsegu.

- Orduan, mejouratzen doiazela ikusten dozue?

Bai, eurak ez detse horrenbeste igertzen, baiña geu konturatzen gara. Oso ondo konpontzen gara alkarrekin eta laguntasun haundixa sortu da geure artian.

Batzuek oso harreman sendua egin dabe”.

Ikastaruak, afarixak eta gehixago

Taldien martxia zelakua dan hobeto ezagutzeko asmuarekin, gaiñera, Jarraipen Batzordia sortu dabe, “talde bakotxaren jarraipena eta baloraziñua egittekot”. Gaiñera, aurreko ikasturtian hasittakuari jarraituta, taldiendako bestelako ekimenak preparatzeko asmua dakela aurreratu deskue programako arduradunak: “Urteerak, afarixak, alkartietara bisittak... oiñ arte egindakuetan oso ondo erantzun dau jendiak. Iaz antolatutako ikastaruak arrakasta haundixa euki eben eta aurten be barrixak preparatzen dihar-

dugu. Horrez gaiñ, ikasturte honetan taldien arteko jokot bat egingo dogu, 10 galderarekin osatutako denporapasa, taldien arteko dinamika sortzekot”.

Izena emotekot aukeria

Berbetan-erakot atiak zabal-zabalik dagoz ikasturte osuan zihar euskaldun barri zein zaharrendakot, izan be programakot arduradunak talde barrixak sortu nahi dittue. Interesakotan edozeiñek ...eta kitto! Euskara Elkartera jo leike informaziñot eske (Urkizu, 11 solairuar-tea. 943200918 telefono zenbakixa). Egunotan, gaiñera, izena emotekot diptikuak esku-ragarri egongo dira euskaltegi bixetan, Portalean eta ...eta kitto!-n bertan.



Urterot Euskal Herrikot herri ezbardinetan antolatzen dan Mintzalagunian be izaten dira eibartarrak.

Iriondo
Santa Ana, 4-6 ELGOIBAR www.iriondodecoracion.com Tel. 943-741234

Promozioak

90x190 459 €
135x190 684 €
150x190 684 €

*Hankak prezioan sartu gabe

MUELLEDUN KOLTXOIA + VISCO

NEOX EGURREZKO SOMIER FINKOIA



5 urteko garantia

100% LATEX KOLTXOIA



HR KOLTXOIA + VISCOLASTICA



90x190 272 €
135x190 378 €
150x190 438 €

*Hankak prezioan sartu gabe

RENOVE planarekin %25 eko deskontua




BAT BURDINEZKO SOMIER FINKOIA

DOUBLE OFFSET MUELLEDUN KOLTXOIA



5 urteko garantia

TEEN- AJEA



Rainbat urtetan Eibar KE-ko Infantil Txikiaren entrenatzaile izan ostean, Ohorezko Mailako Infantil taldeko gidaritzapean arituko da aurtengo Iban Lopez. Berak iaz eskegi zituen foballeko botak, beraz, hainbeste urtetako esperientzia eta jakituria igortzeko aukera izango du 26 urteko eibartar honek.

IBAN LOPEZ, foball entrenatzailea:

“Jokalariak lehenik pertsonak dira, gero foballariak”

- Hasi duzue denboraldia?

Bai. Orain bederlatzi taldeko lau multzotan banatuta gaude eta horietatik hiru txapeldunen faserako sailkatuko dira.

- Nola ikusten duzu taldea denboraldiari begira?

lazko blokeari eusten diogu, izan ere, jokalaria berdinekin egon nintzen Infantil Txikian eta, bestetik, lau fitxaketa egin ditugu taldearen maila hazteko. Onena da eurek ni ezagutzen nautela eta nik eurak, beraz, konfidantza puntu bat daukagu non gauzak diren moduan esan diezaiogun elkarri. Horrela, ez gara hutsetik hasten eta abantaila da hori.

- Zein da zure helburua?

Jokalariak ikastea da helburua. Iaz hiru gauza ikasi bazi-tuzten, aurtengo beste hiru edo gehiago ikastea nahi dut. Argi dago denoi gustatzen zaigula irabaztea, baina bigarren maila batean dago hori. Harrobiaren koordinatzaileak argi utzi digu lehenetasuna jokalariek gauza

ezberdinak ikastea dela. Lehenik pertsonak dira, gero foballariak. Euren ikasketan aurrerapausoak ematea da helburua, entrenamendu edo partiduetatik etxera heltzean zerbait gehiago ikasi dutela ohartzera, zerbaitetarako balio izan zaiela.

- Zein da zure papera ikasketen prozesu horretan?

Ikasketako falta zaiena aztertu eta irakastea da nire nahia. Partiduan atzealdean gaizki ibili direla ikusten badut, hurrengo lan saioetan hori landuko dugu. Ariketa guztiek izan behar dute zentzu bat, gauzak ez dira egitearren egin behar.

- Zu zeu foballean ibili zara aurreko denboraldira arte. Zure esperientzia baliagarria izango da jokalarientzat?


Hainbeste urtetan zehar foballean aritzeak euren lekuan jartzeko balio dit, eta ikasitakoa ere igortzen diet. Bestetik, magisteritza ere ikasi dut eta pedagogikoki oso lagungarria zait.

...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu

Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea

Eskaera:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskera ondo jakitea ezinbestekoa



Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik

● **tartak**

● **enkarguak**

etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Eibarko gaztedia Aitzol Loiola Debako soziologoaren begiradapean egon da azken urte bietan. Loiolak ikerketa egin du euren gainean 2007an Juan San Martin beka irabazi ostean eta kaleratzeaz dago bere lana. Bertan herriko gazteriak izandako eboluzioa azalduko du.

Eibarko Gazteak



Eibarko gazteen iragana, oraina eta etorkizuna aztertu ditu Aitzol Loiola soziologo debarrak 'Gaztedia Eibar herriaren giza eraikuntza-eraldakuntza' lanean. Azken hamarkadetan herriko gazteriak izandako eboluzio eta garapena jasotzen du bere ikerketak eta, horrekin batera, etorkizunera begira gizartearen sektore honek izango dituen ikuspuntu, iradokizun eta alternatibak, besteei jarraitu behar den bidea erakusten dienak. Beraz, oraina ere azaltzen da, iraganaren eta etorkizunaren bidean dagoen ezinbesteko puntua delako.



Aitzol Loiolak egindako azterketan, krisi ekonomikoaren eragina nabaritu du egileak gazteen gaur egungo egoeran.

AZTERKAI

Aitzol Loiolak 16 eta 30 urte bitarteko gazteen egoera aztertu du eta, era berean, hauek bultzatzen duten ekimenak, euren aberastasun eta aniztasuna, eta Eibarren garapenari igortzen diotena ekin-tza ezberdinen bitartez. Azterketa egiteko, bestetik, Eibarko hiru eremu hartu ditu kontuan Loiolak: Legarreko musika zentrua, Matrallako

bestalde, espero ez zuen gako bat aurkitu du bidean Aitzol Loiolak. Izan ere, krisi ekonomikoa gizartearen txoko guztietara iritsi da, baina batez ere gazteengana. Zentzu horretan, egoera ez da ikerketa azaldu zen lehen momentuan bezalakoa, 2007an. Beraz, kontuan hartzeko faktorea izan da krisiarena.

Azken urteetan gazte eibartarrek izan duten garapena azpimarratzen du Loiolak, eta ekintza ezberdinetan hauek izan duten parte-hartze eta inplikazioa. Horren barruan emakumeen presentzia handia eta euskararen erabilera (beste herrietakoa ez bezalakoa) nabarmentzen ditu debarrak.


Gazteek, beraz, gauza asko eskaini diezaiokete bai gizarteari, bai herriari. Legarreko musika zentruaren kasua hartuta, adibidez, gazteek ikusten dute gestio propioarekin proiektu eta ekimenak aurrera atera ateratzeko gauza badirela.

Udalak eta UEUK bultzaturiko Juan San Martin beka irabazi zuen 2007an Aitzol Loiolak eta horren ondorio da ikerketa hau. Euskaraz egin da bere osotasunean eta berehala kalera ateratzeko asmoa dago. Hasiera batean urte baterako lana izan behar zen, baina elkarrizketa kopuru handiak, ikerketan erabilitako materialak eta ondorioen hausnarketak prozesua luzatzea ekarri dute.

ko Irratia eta Gaztetxea. Ikerketa garatzeko, bestetik, barkarkako eta taldeko elkarrizketak landu ditu Loiolak, diskurtso kolektiboak batu eta horietatik ondorioak ateratzeko asmoz. Horien arabera, nabarmena da Eibarko gaztedian eman den aldaketa, eta gizarteari eskaini diezaioketen proposamen eta ekarpenak.

Krisi ekonomikoa

Tesia garatzeko orduan,



bide

— GIDA ETA ARMA-BAIMENAK
— ZIURTAGIRI MEDIKUAK

Arikixaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501

Aldez aurretik txandarik hartu gabe

GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behere erabilitarioen etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
E I B A R R E L

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

GARBIKETAK



INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia



Egiturak, barruko eta kanpoko atek,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garraketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171



Barrena, 26 - 6. C

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tallerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garraketa eta
mantenimendua



- Barne apaintzak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERETATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arrageta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24




PINTURAS
ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ZINEA




Julio Callejaren KOLABORAZIOA

Zer da Zinea?

*Pelikula bat ikustea nahi dugunean, beti esaten dugu **zinea** goazela. Baina zer da zinea joatea? Niretzat, lagunekin geratzea da; eta zein pelikula ikusiko dugun eztabaidatzea. Kafetxo bat hartuz sartu aurretik, sarrerak hartzeko ilandan egotea, jendea agurtuz jendeak zu agurtzen zaituen bitartean... Eta eseri aurretiko mania txiki horiek: komunera joatearena esaterako, horrela pelikularen amaierara arte eutsiko duzulakoan. Txirrinak, hiru abisuak, emozioa... argiak amatatzen doaz gutxinaka eta jendearen arteko zalaparta isiltze bidean... gortinak mugitzen ikusten dituzu eta argi izpi koloreatua pantaila erraldoian proiektatzen da... Hortik aurrera, bakoitzak pelikula desberdina ikusiko du... "the end" azaldu arte, aretoko argiak piztearekin batera. Betiko galderak lagunduko dizkigute jarraian: Zer moduz? Gustatu zaizu? Zein sentsazio? Esanak esan, garrantzitsuena une entretenigarria pasatu duzula da. Nik, horregatik, etxera iritsi bezain laster lagun batzuei deitu diet eta datorren domekan **zinea** joateko zita egin dugu.*

'Bilbao, Bilbao' berriro eszenatoki gainean

ARRIAGA ANTZOKIAK KARRAKA KONPAINIAREN ETA JOSE ANTONIO NIELFA 'LA OTXOA'-REN 'Bilbao, Bilbao' kabareta hartu zuen atzo bere estreinalditik 25 urte eta gero. Horrela, eszenatoki gainean musikal honekin historia egin zuten artisten zati handi bat egon zen. Don Diego Lopez de Haro liraina bueltatzen da, Urrako hiri-sortzaileak, andereño buruhiltzaileak, ikurriña gudak, suhiltzaileak, euskaldunberriak, erreka transexuala eta 'Bilbo modernoa'.



Film laburrak eskainiko ditu EITBK


EITBK FILM LABURRAK ESKAINI NAHI DITU ETB ETA EITB.COM-EN BITARTEZ eta, horretarako, lanak entregatzeko epea ireki du azaroaren 30era arte. Bestetik, film laburrek hainbat baldintza bete behar dituzte. Ikuskaldirako DVD-a, fitxa teknikoa eta artistikoa bidali beharko da. Gainera, lanek ordubete baino gutxiago iraun beharko dute, 16 edo 35 mm-koak izan beharko dira, euskal errekluzatzaileek egina

behar du izan, euskaraz zein gaztelaniaz eta edozein genero onartzen da.

Lan aukeratuek 75 eta 200 euro arteko ordainsariak jasoko dituzte, eta ondoren Zinema Jaialdiren batean saria lortuz gero, diru gehiago eskuratuko luke lan horrek. Film laburrak helbide honetara bidali behar dira: Arkaitz Villar; EITB; Basurtuko Kaputxinoak, 2; 48013 Bilbao; filmlaburrak@eitb.com; 946563924.

'Checkpoint rock' urrian zinemetan

FERMIN MUGURUZA ETA JAVIER CORCUERAK ZUZENDURIKO 'CHECKPOINT ROCK' LUZEMETRAI DOKUMENTALA urrian izango da zinemetan, aurretik Donostiako Zinemaldian eman ostean. Tel Avivoko publizitate iragarki eta neoietatik, Zisjordania eta Gazako eremu okupatuaren pobrezia eta itxaropenik ezera, 'Checkpoint rock' herriz herri eta checkpointez checkpoint elkarren artean oso ezberdinak diren musikariengana hurbilduko da. Gatazkan murgilduta dagoen herri horri buruzko ikuspegi aldatuko duen ibilbidea.



ANTZERKIA


Euskal Teatroa FiraTárrega 2009an


AMAITU BERRI DEN FIRA TARREGA 2009AK KUTSU EUSKALDUNA IZAN DU BERRIZ ERE.

Tarregan egiten den jaialdi artistiko honetan Euskal Teatroa izeneko tarte zegoen, eta Ados Teatroa (Emotikon antzezlanarekin), Ttunikunak (txalapartarekin), Blanca Arrieta (Chalada lanarekin)

eta Turukutupa (Reziketlas lanarekin) konpainiek hartu zuten parte bertan.

Euskal Teatroa Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Arte-Eszeniko euskaldunak atzerrian zabaltzeko duen politikaren barruan kokatzen da, izan ere, FiraTarregak merkatu europearrera zabaltzeko balio izaten du.






Ipuruan jokaturako hiru partiduak irabazi ditu Viaderoren taldeak.

Montañeros garaituta, Vigon jokaturako du Eibar KEK etzi eguerdian

VIGOKO CELTAREN BIGARRREN TALDEA IZANGO DU AURKARI DOMEKAN Eibar KEK. Galziarrak sailkapeneko erdialdean daude eta eibartarrentzat garrantzizkoa izango da eguerdiko 12.00etan hasiko den partiduan puntu bat edo hirurak Eibarrera ekartzeari, batez ere Ponferradina eta Alavés aurretik dituen talde bietako inork ihes egin ez diezaien sailkapenean. Herenegun gauean Ipuruan jokaturako partiduan asko sufritu zuten Viaderok entrenatzen di-

tuen jokalariek Montañeros talde galziarrari irabazteko. Norgehiagoka erabaki zuen gola partidu amaierarako bost minuturen faltan lortu zuen Sutilek penaltiz. Sestaorekin eta Palenciarekin gertatutakolari jarraituz, zalantzak sortu zituen beste behin Eibar KEaren jokoak; hala ere, irabazi egin zuen berriro, aurreko partidu bietan egin zuen moduan. Kanpoan, orain arte eibartarrek berdindu egin zuten Miranda de Ebron eta galdu Ponferradan.



Santesteban txirrindularia mundialetan

ANE SANTESTEBAN DEBARRENAKO TXIRRINDULARIA SUITZAKO MENDRISIO herrian dago, Espainiako selekzioarekin kontzentratuta, asteburuan bertan jokaturako den munduko txapelketa jokatzeko prest. Mutilen taldeak, bestalde, Oñatin eta Bergaran hartu zuen parte aurreko asteburuan eta Sergio Ruiz izan zen proba bietan taldeko ordezkari onena. Oñatin, azkenean, 23. sailkatu zen, irabazlearengandik minutu eta erdira.

Arratek Lábaro Toledo hartuko du bihar 19.00etan

CANGAS DE MORRAZO AURKARI ERRAZA IZAN ZEN EIBARTARRENTZAT ETA JULIAN RUIZEN MUTILEK taldearen egokitze lanak bide

onetik doazela erakutsi zuten. Herenegun gauean jokaturako partiduan, atsedenaldira euren aldeko 11-17ko markagailuarekin erretiratu ziren eta, geroago, 19-30 ere irabazten joan ziren, azkeneko 26-34ra ailegatu aurretik. Goleatzaileei dagokienez, Redeik 6 gol sartu zituen, Cuturak eta Tokic-ek bosna, Harsányik lau eta Garate pitotak ere deialdian sartu eta beste hiru egin zituen. Ondo merezitako

denboraldiko lehen garaipenaren ondoren, igoberri den beste taldea izango du aurkari Arratek; arrisksua da Toledoko taldea, orain arte Reyno de Navarra (Ihengo Portland) eta Octavio Pilotes gainditu baititu bere zelaian eta galdutako partidu bakarra Bartzelonarekin izan da.



Redeik maila bikaina erakutsi du.

Bestalde, denboraldirako abonak eskuratzeko aukera zabalik dago oraindik. Iazko prezioei eusten diete eta denboraldiko partidu guztiak ikusi daitezke 130 euroengatik. Taldeak azken denboraldian 600 abonatu izan ditu, baina daraman ibilbiak beste asko animatu ditzake.

Urriaren 4an Donostian **Zurriola Ikastola**

Kilometroak

AUTOBUSAK
irteera: 09.30etan, Ego Gaietik
itzulera: 19.30etan
prezioa: 8 euro

09

ANTOLATZAILEAK:
 J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
 ...eta kitto! Euskara Elkarte

OHARRA
 autobus-txartelak hartzeko
AZKEN EGUNA irailak 30

hIRÉkin MUNDURA

BAMETSA

Toribio Etxebarria, 4

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxe: 943 12 11 40
 uthemek@uthemek.com

UTHEMEK
 ÚTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.

SPK - Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Herriko pilotariak Kluben Artekoen 1. mailari eustera

GAUR HASTEN DA KLUBEN ARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA BERRI BAT, ES-KUZ BATERA PALETA ETA ZESTA-PUNTA MODALITATEETAN ERE jokatzen dena. Hiru mailatan banatuta dagoen txapelketa horretan, Klub Deportiboko ordezkarien debuta izango da aurten 1. mailan eta ez zaie erraza izango berari eustea. Guztira, bost ordezkari izango ditu Eibarko klubak txapelketan: kadeteetan eta jubeni-

letan bikote bana, seniorretan bi eta eskuz banakako ordezkaria.

Gaur neurketa bi jokatuko dira Astelenan, 20.15etan hasita: Ruiz-Andonegi bikotea Donostiako Alde Zaharrekoen aurka kadeteetan eta, jarraian, seniorretan, Etxaniz-Egaña Lasarte-Oriako bikotearen kontra. Bestalde, Bengoetxeak buruz-burukoa jokatu du Bergaran eta Erik-Agirresarobe jubeni mailako bikoteak Zestoan izango du lehia.



Jon Bengoetxea izango da senior mailako ordezkaria buruz-burukoa. Argazkian, Lezon irabazitako torneoko jokalarari onenaren saria eskuan duela, Fernando Goñik emanda.

Aristi Memorialaren XII. edizioa Arraterendako gazteentzat



Fernando Fernández, gazteenen entrenatzailea.

EZ ZUTEN ERRAZA IZAN; BAINA, PARTIDU BIAK IRABAZITA, ARRATEKO ORDEZKARIEK RAMON ARISTIREN XII. MEMORIALA BEREGANATU ZUTEN domekan. Aurten Zarautzeko taldeak izan ziren aurkariak eta, kadeteetan eibartarrek 30-27 irabazi



Durangoko auto klasikoaren proba Escudería Eibarkoentzat

BIHAR HASIKO DA, DURANGOKO LANDAKO PABILIOIAN, 500 BAT KILOMETROKO IX. KLASIKOEN RALLYA; lasterketa biharko gaua eta zapatuko egun osoa izango ditu lekuko eta pilotoei erregulartasun gehien erakutsi beharko dute San Miguelen, Ondarroatik Lekeitiora eta Bizkaiko Balkoian kokatu diren kontrol sekretuetatik. Azken bi edizioetan, eibartarrentzat izan zen bai garaipen absolutoa eta baita eskuderiendako saria ere, eta Escudería Eibarkoak emaitzak errepikatze gogoz aurkeztuko dira oraingoan ere.

Bost bikotek osatuko dute ordezkariak: Anton eta Iban Beroiz (Ford Fiesta 1.3), Enrique Bernedo eta Unai Villameria (BMW 635 CSI), Roland Holke eta German González (Porsche 911), Angel Pérez eta Jorge Beorlegi (Mini Morris) eta Xabier Redondo eta Fernando Beorlegi (BMW 318).

Durangoko proba hori FEVA Euskadi txapelketako azkenurrekoa da eta hor Holke dago lider eta Anton Beroiz 4.a da; kopilotoei dagokienez, Fernando eta Jorge Beorlegi berdinduta daude 3. postuan eta Iban Beroizek 5.ean dihardu.

zuten bitartean (13-12 atsedendian), jubenetan gol bakar-rarengatik nagusitu ziren Arratekoak (30-29, atsedendian 15-11 irabazten joan eta gero). Horrela, eibartarrek zortzigarren aldiz irabazi dute torneoak; beste lauretatik, hirtan Bidasoa izan zen garailea

eta bestea Santutxuk eraman zuen. Sari banaketan, Aristiren familia izan zen, Miguel Diego Kirol Patronatoko zuzendaria eta Iñaki Bolinaga Arrateren presidentearekin batera. Aristi Arratek bere historian izan duen jokalarri garrantzitsuenetakoa izan zen.

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax: 943 202564

Erregional mailako taldeek denboraldia hasi dute

ASTEBURUAN JOKATU ZUTEN DENBORALDI BERRIAREN LEHENENGO JARDUNALDIA eta, ohikoa denez, gure herriak berriro ere hiru ordezkari izango ditu Erregionalan. Denboraldi berri honetan hainbat aldaketa eman dira mailen izenetan eta, horrela, Eibartarrak-en lehenengo taldeak prefe-


rente mailako 2. multzoan jokatu du, Bergarako BTLS-ren izenarekin (eibartarrak maila galdu zuten azken denboraldian). Eta Erregionalako 1. mailako 5. multzoan hor izango dira Gazteak, Urki eta Eibartarrak B. Asteburuan etxekoan arteko norgehiagoka izan zen Unben eta Gazteak-ek 1-5 irabazi zion Urkiri Unben; Eibartarrak B-k, bestalde, 6-1 galdu zuen Bergara B-rekin. Asteburu honetan, Gazteak-ek Mutrikuarrak hartuko du, Urkik Arizmendiren zelaian jokatu du eta Eibartarrak B-k atsedean hartuko du. Maila bat gorago diharduen BTLS-k Lazkaon jokatu du, denboraldiko lehenengo garaipenaren bila.



Bost talde izango ditu Eibar Rugby Taldeak

ATZO ARRATSALDEAN AURKEZTU ZITUEN EIBAR HIERROS ANETXEN DENBORALDIARI AURRE EGINGO DIOTEN BOST TALDEAK. Gure herriko ordezkariak ez du inoiz izan hainbeste talde, baina aurreko senior mailako talde biei (nagusiena Ohorezko B mailara igo berria) eta jubentil eta infantil mailakoei, nesken taldea ere gehitu behar zaizkie -azken honek seniorretan jokatu du-.

Aurrendenboraldiko bigarren partiduan, talde nagusiak ez zuen bere mailarik onena eman Zarautzen aurka eta 17-5 galdu zuen. Hutsegite asko egin zuen erasoan Isasak zuzendutako taldeak; kontuan izan behar da, hala ere, Jokin, Igor, Unax, Diego, Iñigo eta Jon Unamuno baja izan zirela partidu horretan. Asteburu honetan iaz Ohorezko B mailan jardun zuen Atlético San Sebastián izango dute aurkari.



Gazteak-ek erreposoa eman zion Urkiri Unben. Argazkian, iaizo taldea.

Tankemansen artilleriak lidergoan ipini du taldea

ZAZPI GOL SARTU ZIZKION TANKEMANSEK SOMOS SPORTING TALDEARI ETA, EMAITZA HORREKIN, LIDERGORA EGIN DU JAUZI, aurkaria saikapeneko azken postura bidaliz. Foball zaletu txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu, Areto, Txoko eta Esmorga dira, liderrarekin batera, partidu biak irabazi dituzten taldeak; sei puntu dituzte laurek eta, atzetik, hirukote bat dago lau punturekin (Durangok, Jose Autosek eta Tecnografik-Aelvasak osatzen dutena).

Asteburuko jardunaldia honako partiduak osatuko dituzte: zapatuan, 09.00etan, Alkideba-C.Dental eta Txoko-Sinesponsor (azken hau goiko zelaian); 10.30etan, Areto-Ez-DokLanuss; eta 12.00etan, Durango-So-

mosSporting. Domekan, bestalde, hiru neurketa jokatu dira: 09.00etan, JoseAutos-Esmorga eta, goiko zelaian, Caserío-Tecnografik; eta 10.30etan, Tankemans-KOXAzkena.



Tecnografik-Aelvasa, azken denboraldiko txapeliduna.

Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAIIKA BERBA** Irratsaluan erantzungo dizu, eguerdikoa 12.30etan.
Zure keka, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz
943 82 06 44 zenbakira.

'As Burgas' Galiziako Etxeak 25 urte bete ditu aurten eta Enpanada Jala antolatu dute biharko Urkizuko parkean. 11.00etatik aurrera hainbat ekintza garatuko dira bertan, enpanada lehiaketa barne. Elkartearen presidentzian Amilcar Do Santos dago, etxearen "salbatzailea" bezala ezaguna dena.

AMILCAR DO SANTOS, 'As Burgas'-eko presidentea:

"Ekintza barik Galiziako Etxea 'hil' egingo litzateke"

- 2004an kargua laga eta gero, aurten bueltatu zara 'As Burgas' Galiziako Etxeko presidentziara. Zergatik?

Ez neukan bueltatzeko asmorik, baina jendeak horrela eskatu zidan eta onartu egin nuen. Eurek zioten, Galiziako Etxeak 25 urte betetzen dituzenez, ni egon behar nintzela presidentzian une horretan. Jendearen eskakizuna izan da eta oso gustura nago etxearen buruan.

- Zer antolatzen duzue 'As Burgas' etxetik?

Urtean zehar hainbat gauza: urtarrileko marrazki txapelketa, aratoste txapelketa, Letras Galegas, apirila eta ekaina artean Galiziako Etxeko gaiteroak kanpora joaten dira, urrian txangoa egiten dugu, Galiziako neska batek bertako dantzak irakasten ditugure egoitzan, Magostoa ospatzen dugu, tute eta mus txapelketak daude, eta abar; zerbait gehiago antolatzen ere saiatu nahi dugu. Ekintzarik egingo ez bagenu, Galiziako Etxea 'hil' egingo litzateke.

- Zenbat bazkide ditu gaur egun etxeak?

150, gutxi gorabehera.

- Gora edo behera doan zifra da hori?

Jendea zahartzen doa, batzuk Galiziara bueltatzen dira eta askok bazkide izateari lagatzen diote, hildakoak kontuan hartu gabe. Hala ere, gazteak ere hurbiltzen zaizkigu eta esandako kopuru horri eusten diogu.

- Erreleborrik badator?

Gazteak txikitatik sartu behar dira elkarteari gustua hartzeko; horrela, Galiziako Etxearekiko lotura sortzen zaie. 14 urtera arteko Gazteen Taldea



sortu berri dugu eta sei lagunek eman dute izena, eta espero dugu hauen atzetik beste batzuk etortzea. Dantzak, musikak... ikasiko dituzte. Harrobia badagoela esango nuke; baina, jendea nagusitzen doan heinean, familia, lana... hartu behar dira kontuan, horrek nekea eragiten duelako.

- Zein balorazio egiten duzue 25 urte hauen gainean?

Positiboa orokorrean, une latzak bizi izan ditugun arren. 80. hamarkadan egoitza urez bete zen eta 1995ean ia elkar-tea itxi behar izan genuen, zor-rreratik. Orduan hasi nintzen ni presidente moduan eta egoera horretan aurkitu nintzen; baina, tira, esfortzu handiarekin aurrera irten eta 'Salvador' deitzen didate batzuk orain (barreak).

- Urteurrena ospatzeko zerbait berezia antolatu duzue: Enpanada Jala.

Horrela da. Eta, lehiaketaz gain, zapatuan dantzak, gaiteroak, umeentzako puzgarrak... izango ditugu Urkizuko parkean.



Txotxongiloak, aktoreak eta haurrak dira protagonista.

Bertsoak eta txotxongiloak



UMEEN LIBURUTEGIAK ZAPATU ARRATSALDEAN HELDUKO DIO UMEENDAKO IKUSKIZUNAK ESKAINTZARI, 'Hitzen Lapurra. Bertso txotxongiloak' izenburuko saioarekin. 18.00etatik aurrera 3 eta 8 urte bitarteko umeentzat pentsatutako istorioa kontatuko dute Gorka Tolosa, Erika Lagoma, Alex Tello eta Ainhoa Alberdi antzezleek, Manu Gómezek eta Enkarni Genuak idatzitako gidoiari jarraituta: "Hitzak dira protagonista Ander eta Amaia txotxongiloen eta Lide eta Ximon antzezleen istorio txoan. Hiru ordu laurdenen bueltan, hitzarekin ibiliko dira

jolasean txotxongiloak, antzezleak eta baita 8 urte bitarteko ikus-entzuleak ere".

Istoria bera ume zein nagusien arreta erakartzeko modukoa da: "Herriko plazan gustura dabilta jolasean Lide, Ander, Ximon eta Amaia. Hitzak dira jolas eta herriko plazan itsatsi dituzten hitzekin kantatuko dituzte hainbat koplak, hainbat... plazatik alde egin eta orduan ezustekoa! Zapi beltzez estalita agertu da norbait, misterioz beteta... lapurra, hitzen lapurra!". Koplak eta koplak artean, umeek protagonistei lapurra nor den asmatzen lagunduko diete.

Mursegoren emanaldia
Gaztetxean. / LEIRE ITURBE

VICTOR IRIARTE.



Mursegoren musika gaur Coliseoan

MAITE ARROITAJAUREGI EIBARTARRAREN BAKARKAKO PROIEKTU BERRIA ZUZENEAN ezagutzeko aukera izango da gaur gauean, 22.00etatik aurrera Coliseo antzokian. Mursego izenburuko proiektuak biolontxeloa du ardatz, baina inguruan beste instrumentu batzuk lagun izango ditu. Sarrerak 3 euro balio du.

San Andres bertso-paper lehiaketa hastear da

URRIAREN 1-EAN, EGUENA, ZABALDUKO DA SAN ANDRES BERTSO PAPER LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA. Aurtengo edizioak badu berritasunik gainera: iaz arte 16 urte tik gorako mailan Deba Bailara eta Durangaldekoek parte har zezaketen, baina aurten Euskal Herri osora zabalduko ditu ateak lehiaketak. Maila horretakoek 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso aurkeztu beharko dituzte gutxienez. Gaztetxoenen mailan, berriz, Lehen Hezkuntzako ikasleek bertso bat edo bi kopia aurkeztu beharko dituzte eta DBHkoek, berriz, bi bertso edo lau kopia. Lanaren hiru kopia, gaitzizena sinaturik eta gutunazal itxian gaitzizena identifikatzeko datuak jasota, azaroak 6a (barne) baino lehen bidali beharko dira ...eta kitto!-ra (Urkizu 11, solairuartera. 20600 Eibar). Sariei dagokienez, nagusien maila-

ko irabazleak 300 euroko saria eta txapela bereganatuko ditu, DBHko irabazleak 120 euro eta txapela eta LHkoak 45 euro eta txapela. Irabazleek azaroaren 27an Portalean egingo den Bertso Jaialdian jasoko dituzte euren sariak.



Sostoa abesbatzaren eguna

ABESBATZAREN SORRERAREN 25. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIEK AURRERA DIRAUTE eta, horren harira, Sostoa Abesbatzaren eguna ospatuko dute urriaren 17an. Asmoa gaur egun abesbatzako kide direnek eta mende laurdeneko ibilbide honetan inoiz Sostoa kide izan direnek jai giroan elkartzea da eta, horretarako, bazkaria antolatu dute Arrate hotelean. Bazkariaren inguruan beste hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa azaldu dute, baina egitaraua oraindik zehazteke dago. Bazkarian zein bestelakotan parte hartu nahi dutenek urriaren 10erako 55 euro sartu beharko dituzte, izen-abizenak argi azalduta, Kutxako kontu korrante honetan: 2101 0035 11 000 3075496. Azalpen gehiago behar izanez gero, 635730539 edo 639748961 telefono zenbakira deitu daiteke.

Arrate izenekoen jai arrakastasua

URTEROKO OHITURARI JARRAITUTA, ARRATE IZENA DUTEN ANDRAK, eibartarrak zein kanpoan bizi direnak, Arraten elkartu ziren asteburuan, domekan, eguna jai egunean emateko asmoarekin. Animatuenak oinez igo ziren eta talde osoak bat egin zuen santutegian. Meza entzun ondoren, bazkaria, jokoak, dantzak eta, nola ez, umore ona nagusi izan ziren.



Baroja Colleten eta Txilikuren lana KMn

DONOSTIAKO KOLDO MITXELENA KULTURUNEKO GANBARA ARETOAK EGUAZTENAZ GEROZTIK 'PIZTIARIOA', Juan Luis Baroja Collet artista eibartarrak eta Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' idazle zarauztarrak elkarrekin sortutako lanaren erakusketa hartuko du. Azaroaren 7ra arte egongo da ikusgai erakuske-

ta, ohiko ordutegian: martitzenetik zapa-tura, 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara (astelehen, domeka eta jaiegunetan itxita egongo da). Bisita gidatuak egiteko aukera ere badago, kmk@komazk.com helbidera idatzita edo 667346025 / 943112757 telefono zenbakira deituta.

laburrak

PINTXO IKASTAROA

...eta kitto! Euskara Elkarteak iragarritako pintxo ikastarorako izen-emateko epea astelehenean zabaltzekoa bazen ere, antolatzaileek egun batzuk atzeratzea erabaki dute. Hurrengo alean zehaztuko ditugu ikastaroaren nondik norakoak.

85 URTEKOEI EMANALDIA

Ipuruako jubilatutako etxeak aurten 85 urte bete edo beteko dituzten bazkideentzat omenaldia prestatzen dihardu. Urriaren 24an eta 25ean izango diren ekitaldiak honakoak dira: zapatuan (urriak 24) aurreko egunetan jokaturako txapelketetako irabazleei sariak banatuko dizkiete; eta hurrengo egunean, berriz, 12.00etan San Pio X.a elizan ospatuko den mezarekin egingo diote egunari. Mezan Goruntz abesbatzak hartuko du parte. Ondoren, Arrate Hotelean bazkaria egingo dute omendutako lagunekin eta haien familiakoekin. Parte hartu nahi duenak urriaren 15era arte izango du izena emateko aukera.

USARTZAKO ERROMERIA

Urriaren 4an bazkaria antolatu dute Krabelin jatetxean, sasoi batean Usartzan domeka arratsaldetan ospatu ohi zen erromerian parte hartzen zutenekin. Bazkariak 34'50 euro balio du eta joan nahi duenak Krabelinen bertan eman dezake izena (943202727 telefono zenbakia).

Iker Aranberri
Sarasua

Debekuak

Zerbait txikitzea, deusestea, haustea oso erraza izan ohi da; sortzea edo eraikitzea baino ere errazagoa. Zer nolako plazerria eman ohi duen plater bat lurrera bota eta txikitzeak, edota orri bat eskuen artean hartu eta bolatxo bat bilakatzeak. Plater horretan lehenagotik egondako jakia prestatzeak edo folio horretan idatzitako ipuin edo poesia idazteak, ordea, lana, esfortzua eta kemena eskatzen ditu. Nekea, azken finean. Baina, behin lanak eginda (sukaldean pasatako orduak edo folio zuriaren aurrean pentsatzen emandako une amaitzezinak) jasotako satisfakzioa erabatekoa izaten da. Eta, emaitzarekin sentitzen duzun harrotasuna, mugaiezina. Bai, deusezteak erraza eta atsegingarria da. Sortzea, ordea, nekezagoa izan daiteke, baina baita askosaz betegarriagoa ere. Debekatzea ere zein erraza den. Debekatuak mahai gainean duen botoi gorria sakatzea bezain erraza eta erosoia izan daiteke. Zaila da, ordea, debekuen gainetik burua zutik eta tinko izan eta lanerako prest egotea (zaila, eta herri honetan baita arriskutsua ere). Baina zeinen pozgarri eta atsegingarri den zerorrek sinesten duzun horregatik apustu egitea eta, debekuak debeku, aurrera jarraitzea. Debekugilearena lan erraza eta tristea da. Debekuei aurre egiten dionarena, berriz, gogorra eta itxaropenak elikatua. Lan gogorra du debekuari aurre egiten dion herriak, baina lan horrek ematen duen plazerak debekuak sorrarazitako amorrua irentsiko du.

Udazkeneko ikastaro eskaintza zabala UEUn

MARTITZEN GOIZEAN AURKEZTU ZITUEN UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK UDAZKENERAKO PRESTATU DITUEN IKASTAROAK. Urria eta azaroa bitartean zortzi ikastaro eskainiko ditu UEUk Eibarren, Markeskua jauregian. Ikastaroen aurkezpena Ane Sarasua UEUko kudeatzaile nagusiak, Mari Karmen Menika Ikastetxe Nagusiko arduradunak eta Mari Jose Telleria Kultura eta Euskara zinegotziak egin zuten eta ekitaldia Markeskuan ikastetxe nagusia zabaldu zela 8 urte bete direla gogoratzeko aprobetxatu zuten: *“Harrezkero, urtetik urtera eskaintza akademikoa ugartu egin da, bai antolatutako ikastaro kopuruari dagokionez eta baita jorratutako gai eta il-doei dagokionez ere”.*

Markeskuan emango diren ikastaroak honakoak dira: informatika eta teknologia berrien atalari lotuta, ‘Ordenagailuz lagundutako itzulpena. Wordfast 5 aurreratua’ eta ‘Ingurugiroa ezagutu. GPS eta GIS baliabideak’; hizkuntzaren irakaskuntza eta motibazioa atalean, TELP tailerra emango dute (lehen eskainitakoaren osagarria); gizarte-gaiei lotuta, berriz, ‘Proiektuen kudeaketarako teknika berriak’, ‘Jabetza intelektuala eta teknologia berrien eragina’ eta ‘Ikus-antropologia. Antropologia ikusgarri-rantz’ izenburukoak eskainiko

dituzte; eta garapen pertsonalaren arloan, ‘Komunikazio eragin-korraren artea (II. Moduloa)’ eta ‘Tantra: maitasunaren atea’.

Izena emateko epea zabalik

Ikastaroak erakargarriak egiteko asmoari jarraituta, gaurkotasunari lotutako gaiak aukeratu dituzte eta, gainera, *“ikastaroak laburrak dira, 10 eta 30 ordu bitartekoak, eta ordutegiak ere zaindu ditugu. Ikastaro horietan guztietan euren esparruan adituak diren irakasleak izango dira eta ikasleek, ikastaroetan parte hartu eta gero, ikastaroak unibertsitaterako aukera askeko kreditu moduan amortizatu ahal izango dituzte”.*

Bestalde, matrikula prezio bereziak daude ikasle, langabetu eta jubilatuentzat eta hainbat Udalek, Eibarkoa barne, bertan erroldatutakoei matrikularen erdia ordaintzen diete. Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago eta ikastaro bakoitza hasi baino astebate lehenago amaituko da. Informazio gehiagorako edo matrikula egiteko www.ueu.org helbidera jo dezake edo, bestela, 943-821426 telefono zenbakira deitu.



Mari Karmen Menika eta Ane Sarasua, aurkezpen ekitaldiko une batean. / EKHI BELAR



Zortzi urte dira Markeskuan ikastetxe nagusia zabaldu zela. / EKHI BELAR

EUSKARAREN


EUSKARAREN ALDEKO DEIADAR-ERA DEITU DU KONFEDERAZIOAK.

Ipar Euskal Herrirako euskararen ofizialtasuna eta hizkuntza gutxituen aldeko legea garatzeko eskatuko dute Baionan urriaren 24an. Hizkuntza gutxituei buruzko legea aurten han aurkezteko hitza eman du Frantziako Gobernuak; horregatik, Konfederazioko kideek uste dute aurten “urte berezia” dela euskararentzat. Maiatzerako hasi zen Euskal Konfederazioa ekimenak egiten Deiadarraren inguruan eta 24ko manifestazioa izango da ekitaldi nagusia; aurten, gainera, hizkuntza gutxituak dituzten beste herrialde batzuetan ere egingo dituzte ekimenak, hala nola, Britainian, Okzitanian, Alsatian, Korsikan, Reunion uhartean eta Ipar Katalunian, kasu. Lege aldatetarekin batera, euskararen ofizialtasuna aldarrikatuko dute manifestazioan: *Hizkuntza politika ausarta garatzeko lege geriza. Euskara hizkuntza ofiziala izango da martxaren leloa. Kontseiluek ere babestu du Deiadar ekimena.*



TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguztana aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JOSU, hillaren 19xan bost urte bete zenduazelako. Eta aitxitxa JOSE LUISeri, 23an egin zittualako. Familixaren partez.



Zorionak, KEPA, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxto, amatxo eta famelixa osuaren partez.



Zorionak, LAIA, printzesa, atzo urte bi bete zenduaz-eta. Aitaxto, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, UNAI, bixar hiru urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partetik.



Zorionak, IRATI eta MIREIA Conde Roige, martitzenian lau urte egin zenduaz-eta. Familixaren partez.

zineafilmakzinea 26an, 19.30 eta 22.30etan
27an, 19.30etan; 28an, 20.30etan

coliseo 1


"Arráncame la vida"

Zuzendaria:

Roberto Sneider

Aktoreak:

Ana Claudia Talancón, Daniel Giménez, Jose María de Tavira, Joaquín Cosío...



Andres eta Catalina maitemindu egin dira; 1930. Urtea da eta emakumeek ez dute libre bizitzeko aukera handirik. Bizitza izugarria eskaintzen dio Andresek, baina denborarekin hori baino gehiago nahiko du Catalinak, Vives ezagutzen duenean, bereziki...

coliseo 2

"Pagafantas"

Zuzendaria:

Borja Kobeaga

Aktoreak:

Gorka Otxoa, Sabrina Garziarena, Oscar Ladoire, Kiti Manver...



Neska ileapaintzailea da, mutilak ilea du eta neska du gustuko. Ileapaintzaileak nahi duen guztia egiten dio mutilari, maiteminduta dagoela aprobetxatuta. Ileapaintzailearen zain denbora luzea eman du, baina pazientziak ere badu mugarik...

coliseo 3

"Los sustitutos"

Zuzendaria:

Jonathan Mostow

Aktoreak:

Bruce Willis, Radha Mitchell, Rosamund Pike, James Francis Ginty...



Etorkizunean gizakiak isolatuta biziko dira, euren irudia duten roboten bitartez izango dute hartuemon. FBIko bi gizaki-robotek hainbat erahilketa ikertu beharko dituzte. Norbaitek androideak akatzen dihardu...

DENBORAPASAK

SUDOKUJA

								5
1				5	2	8		4
	5		7	1				
4		2			9			7
		1	2	7				9
	6		3					
9						4	3	
3	7				1			9
		4	9	3		7	5	

2	8	8	3	5	1	9	4	7
7	9	3	8	2	4	5	6	1
5	1	4	6	7	9	2	3	8
1	4	9	2	6	7	8	5	3
6	5	7	1	8	3	4	2	9
8	3	2	4	9	5	7	1	6
9	7	1	5	4	6	3	8	2
3	2	5	7	1	8	6	9	4
4	8	6	9	3	2	1	7	5

AURREKOAREN EMATZA

JAIOTAKOAK

- Aitana Arriaga Nieto. 2009-IX-4.
- Uxue Gómez Silbares. 2009-IX-6.
- Nahia Mora Córdoba. 2009-IX-7.
- Xabier Pérez Ibáñez. 2009-IX-8.

HILDAKOAK

- Antonio M^o Freitas Pereira. 35 urte. 2009-IX-17.
- Elvira Ramos Donoso. 91 urte. 2009-IX-17.

horoskopoa

ARIES

Ez zaitez hain gogorra izan zure buruarekin. Ezin baduzu gauza bat egin, ezin da egin eta kitto. Ez galdu indarrak alferrik.

TAURUS

Zerbaiten beharrea ibiliko zara eta ez duzu ezer aproposik aurkituko. Probatu duzu interneten begiratzea? Edozer gauza aurki daiteke han.

GEMINI

Gauzak berritu beharko zenituzke: arinak izanda, garrantzitsuak direlako. Ezin zara betikoarekin geratu, horrek ez baitizu ezer eskaintzen.

CANCER

Gauza bat da teoria ondo jakitea eta beste bat da ikasitako hori praktikara eramatea. Laster izango duzu zure dohaia erakusteko aukera.

LEO

Euli bat izango balitz bezala izango duzu pertsona hori atzean etengabe. Zergatik ez diozu pentsatzen duzuna esaten behingoz, ea aldatzen den?

VIRGO

Gauzak ez dira egun batetik bestera ahazten; beraz, ulertu pertsona hori zutaz ez fidatzea oraindik. Trankil, denborarekin pasatuko zaio.

LIBRA

Datozen egunotan azken urtean baino sendagile gehiago ikusiko dituzu. Ondozik egongo zara eta euren laguntza behar izango duzu.

SCORPIUS

Barrerako gogo handia izango duzu; edozer gauzak sortuko dizu barregrua. Esaten dutenez, oso ona da barre egitea; beraz, zuretako hobe!

SAGITTARIUS

Aste lasaia zuretzat, Sagittarius. Ez zaizu ezer berezirik gertatuko, ez txarrik ezta onik. Trankil egoteko momentua da, atsedena hartzekoa.

CAPRICORNIUS

Proiektu bat hasten baduzu, ez gelditu; egin aurrera konbentzitututa bazaude. Atzera egiten baduzu, ondorioak txarregiak izan daitezke.

AQUARIUS

Edozein unetan zerbait harrigarria gerta dakizuke. Batzuetan hobe da ezustean harrapatzea; baina egon prest, gogorra izan daitekeelako.

PISCIS

Dei baten zain zaude, baina dei hori ez dirudi datorren astean iritsiko denik. Hobe da hori ahaztea eta beste gauza batetan pentsatzea.

Barixakua 25**ARTISAUTZA AZOKA**

11.00.- Estatuko zein atzerriko gastronomia eta artisautza azoka. Untzagan.

KONTZERTUA

22.00.- 'Mursego', Maite Arroita jauregi biolontxelo-jolearekin. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Zapatua 26**ARTISAUTZA AZOKA**

11.00.- Estatuko zein atzerriko gastronomia eta artisautza azoka. Untzagan.

ENPANADAREN JAI

11.00.- Taberna irekiko da, enpanada eta Ribeiro ardoa saltzeko.

13.00.- Gonbidatuei harrera. I. Enpanada Txapelketa.

14.00.- Sari-banaketa ekitaldia.

16.30.- Umeendako puzgarriak.

21.00.- Jaiaren amaiera. Urkizuko parkean.

BIEN APARECIDA

16.00.- Flor txapelketa.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- *Bertsotxongiloak. Hitzzen lapurra.* 3-8 urte bitarteko umeentzat. Umeen Liburutegian.

GUDARI EGUNA

19.30.- Eusko gudariei omenaldia eta manifestazioa. Gudarien Plazatik abiatuta (Toribio Etxebarria kalean, San Andres eliza parean).

KONTZERTUA

22.30.- Rock kontzertua: PAM eta Lindane. Tallarra gaztetxean.

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA. Ikerketa esparrua: Artea. Urriaren 11ra arte, Pegoran edo Portalean.

GOTZON GARATE BEKA 2009.

Ikerketa esparrua: Elgoibarko Toponimia. Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean (943 74 43 66 euskara@elgoibar.org)

Domeka 27**ARTISAUTZA AZOKA**

11.00.- Estatuko zein atzerriko gastronomia eta artisautza azoka. Untzagan.

BIEN APARECIDA

12.00.- Meza, San Agustín parrokiaren.
13.00.- Piskolabisa.
14.30.- Lagunarteko bazkaria, Arrate Hotelean. Egunean zehar, La Montaña gaita taldearekin jai giroa.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito musika bandaren kontzertua. Coliseoan.

GUDARI EGUNA

13.00.- Gudari Eguneko ekitaldi nagusia.

Astelehena 28**SAN MIGUEL JAI**

18.00.- Kanpai iraulketa eta txupinazoa, jaiari hasiera emateko. Aginaga auzoan.

Martitzena 29**SAN MIGUEL JAI**

11.00.- Meza nagusia, abesbatzak eta Usartza txistulari bandak lagunduta.
12.00.- Piskolabisa eta umeendako jolasak.
14.00.- Lagunarteko bazkaria, Usartza txistulari bandarekin. Aginaga auzoan.

EXPOADINTSU

12.00.- Expoadintsu pertsona nagusiendako azokaren inaugurazio ekitaldia. Orduetgia: 14.00ak arte eta 15.30etatik 19.30etara. Sarrera doan. Astelena frontoian.

Eguaztena 30**EXPOADINTSU**

10.00.- Expoadintsu pertsona nagusiendako azoka. Orduetgia: 14.00ak arte eta 15.30etatik 19.30etara. Sarrera doan. Astelena frontoian.

KALETAN KANTUZ

12.00.- Untzagan elkartuko dira, Expoadintsu azokara abastera joateko.

Eguena 1**EXPOADINTSU**

10.00.- Expoadintsu pertsona nagusiendako azoka. Orduetgia: 14.00ak arte eta 15.30etatik 19.30etara. Sarrera doan. Astelena frontoian.

diru-laguntzak**UMEAK ESKOLARA**

2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoak). Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

KOADRILENTZAKO LOKALAK.

Eskaerak eta informazioa: Irailaren 30era arte, Pegoran.

2009ko irailaren 30a	2009ko irailaren 30a	2009ko irailaren 30a	2009ko irailaren 30a	2009ko irailaren 30a

erakusketak

- **Irailaren 30era arte**
DONES elkartekoen argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.
PEDRO MORAren argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
MATEO GUILABERTen argazki erakusketa.
Deustuko Beer House tabernan (Bilbo).
- **Urriaren 4ra arte**
MARIA TERESA UNZUETAren margo erakusketa.
Topalekuan.
- **Urriaren 9ra arte**
EXPOADINTSU ARGAZKI LEHIAKETAko lanen erakusketa. *Untzaga jubilatuta etxean.*

ikastaroak

- **Hankamotzak Bertso Eskola.**
Nork: LH eta DBHko ikasleek zein helduek.
Izen-ematea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartean.
- **Debako Arte Eskola.**
Izen-ematea eta informazioa: 943191804 telefono zenbakian edo www.debarte.net helbidean.
- **AEK Euskaltegia.**
Izen-ematea eta informazioa: AEK Euskaltegian (943201379 telefono zenbakian).
- **Udal Euskaltegia.**
Izen-ematea eta informazioa: Udal Euskaltegian (943700912 telefono zenbakian).
- **Espereintzia Eskola.**
Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.
- **Sorosle eta Sorospen ikastaroa.**
Noiz eta non: Urriaren 20tik aurrera, asteleheneetik barixakura, 19.00etatik 21.00etara DYako egoitzan (Pagaegi kalea, 5).
- **UEUko Udazkeneko ikastaroak.**
Izen-ematea eta informazioa: www.ueu.org helbidean edo 943821426 telefono zenbakian.
- **Berbetan.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kitto! Elkartean (Urkizu, 11) edo 943200918 telefono zenbakian.
- **Itsas-patroi ikastaroa.**
Armeria Eskolan. Izen-ematea eta informazioa: Eguzki Jaia itsas akademia (www.eguzkijaia.com) edo 616175672 telefono zenbakian.

famaziak

- 25, barixakua**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 26, zapatua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 27, domeka**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 28, astelehena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 29, martitzena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 30, eguaztena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 1, eguena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 2, barixakua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

lehiaketak

- **Indalezio Ojangueren XXII. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte. Informazioa: Pegoran.
- **Asier Errasti Eibarko X. Laburmetraia Jaialdia.**
Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte. Informazioa: Pegoran.
- **Sanandresak 2009 kartel lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte. Informazioa: Pegoran.
- **San Andres bertso-paper lehiaketa.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuareta) edo 943200918 telefono zenbakian.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdire). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdire. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Eibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Balkoi bi. Dena kanpora begira. Sartzeko moduan. Tel. 943-206322 edo 943-200547.
– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

1.2. Errentan

– Eibarren edo inguruan borda, txabola edo baserria alokatu edo erosiko nuke. Tel. 670-272714. Jon.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789.
– Emakume batek Eibarren edo Ermuan pisua hartuko luke alokairuan. Altzaririk gabe. Tel. 616-746257.
– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 616-207343.
– Bikote arduratsua pisua hartuko luke Eibarren alokairuan. Tel. 687-388493 edo 638-520784.

1.3. Konpartitzeko

– Gela alokagai Legarren, zentroitik gertu, etxean bi izateko. Kalefakzioa eta wifi. Tel. 620-633434.

1.4. Etxe-trukaketa

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegaineko geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Opel Astra salgai. 56.000 km. 14 urte. 4.000 euro. Tel. 626-933850.
– Mercedes Sprinter furgoneta-etxea salgai. 4 lagunendako. Sukaldea, komuna, ohe bi, dutxa eta hozkailua. Berria. 40.000 euro. Tel. 656-768944.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-018538.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 671-742142.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-383471.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611 edo 664-881835.
– Emakume arduratsua eskaintzen da egunez edo gauzez nagusiak ospitalean zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 660-073781.
– Emakumea eskaintzen da arratsalde, gauzez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 678-173847.
– Neska eskaintzen umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-938307.
– Gizona eskaintzen da igeltsero edo soldadore moduan eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 616-809926.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 648-603029.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 670-957709.
– Gizona eskaintzen da elektrizitate konponketak egiteko. Tel. 652-779800.
– Neska eskaintzen da umeak zaindu, kamarera moduan edo garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.
– Neska eskaintzen da 09.00etatik 12.30etara etxeko lanetarako. Tel. 943-751950 edo 650-113213.
– Neska eskaintzen da 08.30etatik 12.30etara etxeko lanetarako. Tel. 659-126852.
– Emakumea eskaintzen da 14.00etatik 18.00etara garbiketa lanetarako. Tel. 634-256471. Yamaira.
– Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-192683.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Gauak barne. Tel. 610-632782.
– Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-482478. Lorena.
– Mutila eskaintzen da asteburuetan kamarero lanetarako. Tel. 658-719676.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-908730.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai/Erosgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 667-323138.
– Mutila eskaintzen da sukaldari edo laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 630-531469.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 651-836353.
– Emakume arduratsua eskaintzen da arratsalde umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-048823.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko edo bulegoak garbitzeko. Tel. 687-114707.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.
– Magisteritzako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 679-237611.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia. Tel. 943-702357 edo 662-252150.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 618-828506.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta tabernetan lan egiteko. Asteburuak barne. Tel. 630-404538.
– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 19.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 647-044031. Marian.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 653-402884.
– Neska eskaintzen da arratsalde edozein lanetarako. Tel. 690-791689.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-702357 edo 652-047223.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-736539 edo 943-257901.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 617-181542 edo 617-000972.
– Haur-Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsalde. Esperientzia. Tel. 626-752117.
– Pertsona arduratsua eskaintzen da tabernak, pegoarak eta sozietateak garbitzeko. Tel. 687-388493 edo 638-520784.
– Neska arduratsua eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko, tabernak edo pegoarak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 663-786976.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka. Tel. 943-207285 edo 660-073781.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 678-305927.
– Gizona eskaintzen da igeltsero-laguntzaile, sukaldari-laguntzaile, garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-552386.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754. Indira.
– Neska eskaintzen da kamarera moduan asteburuetarako. Esperientzia. Tel. 678-305927.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da gosari, bazkari eta afalorduetan laguntzeko. Tel. 626-933850.
– Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.
– ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– EGA prestatzeko irakasle partikularren bila nabil. Tel. 943-821353. Esther.
– DBHko klase partikularrek emateko pertsona behar da. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

– Lizentziatuak Informatikako eta DBH-rainoko klaseak emango lituzke. Larunbatetan ere bai. Tel. 659-651010.
– LH eta DBHko klase partikularrek ematen dira. Euskaraz- Tel. 650-871887.

6. Denetarik

6.1. Salgai/Erosgai

– Sukalde italiar bi salgai. Estreinatuta gabeak. %50eko deskontua. Tel. 656-756485 edo 656-723437.
– Erroberadun aukia erosiko nuke. Tel. 685-768857. Aurora.
– Konpresore handia salgai. Arbakom markakoa. Erabili gabe. 200 euro. Tel. 606-949658.
– Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 616-801304.
– Egongelarako altzariak salgai. la berriak. Prezio onean. Tel. 943-120308.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Irailaren 11n konpromisoko aliantza galduta zen Bidebarrietan. Familia oroigarria. Sarituko da. Tel. 630-876184.
– Irailaren 18ko arratsaldean lehen jaunartzeko gurutzadun katea galduta zen, Manterola eta Trinketeren artean. Sentimenduzko balorea. Tel. 943-031681.
– Abuztuko lehenengo astean argazki-kamara galduta nuen Barrena edo Barakaldo inguruan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 656-792861.

GIPUZKOA

BIZKAIA

ARABA

NAFARROA

IPARRALDEA

KANTABRIA

ASTURIAS

GALIZIA

sagardotegi

**Urriak 3,
zapatua**

12.00-13.30

18.00-amaitu arte



EIBARREN

UNTZAGAN

antolatzailea:



Euskara Elkarte

laguntzaileak:



sagardotegi laguntzaileak:
